

INFRAESTRUKTURAK: Baliabide garrantzitsuenak

Gure proiektua aurrera eramateko, hainbat baliabide garrantzitsu behar ditugu. Lehenik eta behin, giza baliabideak ezinbestekoak izango dira. Horretarako, adituak (ingeniari kimikoak, diseinatzaileak, teknikariak) eta erabiltzaileen ikerketarako taldeak behar ditugu, baita marketing eta komunikazio profesionalak ere gure produktua zabaltzen laguntzeko. Materialak ere funtsezkoak dira, plastikoak, metalak eta sentsoreak bezalako egiturazko materialak. Hauek kalitate onekoak izan behar dira jendeak bertatik edan behar duelako eta legeak bete behar dituelako.

Teknologia eta ekipamenduak garrantzitsuak izango dira produktuaren diseinua, droga-detekzio sistema, ekoizpena eta merkaturatzea modu eraginkorrean garatzeko. Proiektuaren finantzaketa bilatu beharko da, diru-laguntzak eta ekoizpen-gastuak barne. Festetan erabilitako produktua denez udaletxeak eta antolatzen dituzten erakundeak prest egongo lirateke segurtasunaren alde aportatzeko. Era berean, azpiegitura egokia behar dugu, fabrikazio lantegiak, probaguneak eta banaketa sareak barne. Legezko eta administratiboak aspektuak ere ez dira ahaztu behar, patenteak, ziurtagiriak eta merkataritza baimenak lortu behar dira.; horiek gabe ezingo genuke aurrera egin. Azkenik, marketing estrategia bat garatu behar da, promozio materialak eta online denda bat prestatu behar dira. Gaur egun ain erabiliak diren sare-sozialetaz baliatuko gara gure produktua jende gaztearengana iristeko, horiek dira eta erabiltzaileak nahiz eta ez izan bezero zuzenak.